



IRAGARKIA, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorderako kide bat izendatzeko deialdi publikoari buruzkoa.

2016ko irailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (177. zk.), Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko 2016ko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horren xedea da aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arloan aurreikusitako aurkaratze-araubidea aplikatuz.

Dekretu horretan ezartzen denez, "Batzordea hiru kidek osatuko dute: batzordeburuak, zeina Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren titularrak izango baita; eta bi kidek, zeinek, aldi berean, idazkaritza ere hartuko baitute euren gain. Kide horiek autonomia erkidegoko administrazio orokorreko karrerako funtzionarioak izango dira, eta Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak izendatuko ditu, deialdi publikoa egin ondoren".

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren eta, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren arabera (12.2 artikulua), gaur egun, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren zuzendaria da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen presidentea.

Halaber, 2016ko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak hau ezartzen du: "Batzordekideak diren funtzionarioen karguari datxekion

ANUNCIO relativo a la convocatoria pública para la designación de una persona vocal para la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública.

En el Boletín Oficial del País Vasco nº 177, de 16 de septiembre de 2016, se publica el Decreto 128/2016, de 13 de septiembre de 2016, de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública, que tiene como función la resolución de las reclamaciones que se presenten, en aplicación del régimen de impugnaciones previsto en materia de derecho de acceso a la información pública.

En dicho Decreto se determina que "estará compuesta por tres miembros: su Presidencia, que recaerá en la persona titular de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración; y dos vocales, que ejercerán a su vez la tarea de secretaría, y que serán funcionarios o funcionarias de carrera de la Administración general de la Comunidad Autónoma, nombrados por el consejero o consejera del departamento de Administración Pública y Justicia previa convocatoria pública".

En virtud del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y del artículo 12.2 del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, la presidencia de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública corresponde actualmente a la Directora de Gobierno Abierto y Buen Gobierno del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno.

Así mismo, el Decreto 128/2016, de 13 de septiembre de 2016 establece que "El desempeño de las funciones inherentes al cargo





eginkizunek ez dute arduraldi eksklusiboa ekarriko, haien lanpostuari dagozkion zereginak beteko dituzte txandaka, eta benetako lanalditzat hartuko da edonola ere. Batzordekide horiek ezartzen diren moduan eta baldintzetan jasoko dute ordainsaria, hartutako zereginengatik, jarduera egiteko erabilitako denboraren eta arduraldiaren arabera, baita aztertzen dituzten gaien kopuruaren arabera ere." Zenbatekoak Gobernu Kontseiluaren 2018ko otsailaren 20ko Erabakiaren bidez zehaztu ziren, zeina Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kideek jaso beharreko konpentsazio ekonomikoari buruzkoa baita (pdf, 100 kb).

Era berean, eta beren autonomiaren berme gisa, aipatutako dekretuak zehazten du aipatutako funtzionarioak lau urterako izendatuko direla, eta agintaldia amaitzeagatik edo lehendakariak dagokion prozedura instruitu ondoren baino ezin izango direla kargutik kendu, beren betebeharrak larriki ez betetzeagatik, beren eginkizuna betetzeko ezintasun iraunkorragatik, gerora sortutako bateraezintasunagatik edo doloeko delituagatik kondenatzeagatik.

Bokaletako batek, 2025eko azaroaren 5eko Aginduaren bidez izendatu zenak (Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren Agindua, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kide bat kendu eta izendatzen duena, eta haren osaera argitara ematen duena), 2025eko abenduaren 16an jakinarazi zuen uko egiten ziola formalki, gerora sortutako bateraezintasunagatik, 2025eko abenduaren 19tik aurrerako ondorioekin, eta, ondorioz, batzordekide izateari uzten dio.

Interesdunek, zeinek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioak izan behar baitute eta, ahal bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko goi-mailako kidego batekoak izan behar lukete, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren zuzendaritzara zuzendu beharko dituzte

de las personas funcionarias que sean miembros de la Comisión no conllevará dedicación exclusiva, alternando con el desempeño de las tareas propias de su puesto de trabajo, y siendo en todo caso considerado como jornada laboral efectiva. Dichos miembros serán compensados económicamente en la forma y condiciones que se determinen, por la asunción de tareas, en función del tiempo y dedicación utilizado en el ejercicio de la actividad, así como por el número de asuntos de los que conozcan". Las cuantías fueron determinadas mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 20 de febrero de 2018 sobre la compensación económica a percibir por los miembros de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública.

Así mismo y como garantía de su autonomía, el citado decreto determina que los funcionarios o funcionarias citados serán nombrados por cuatro años y únicamente podrán ser cesados por la expiración del mandato o previa instrucción del correspondiente procedimiento por la Presidencia, por incumplimiento grave de sus obligaciones, incapacidad permanente para el ejercicio de su función, incompatibilidad sobrevenida o condena por delito doloso.

Uno de los vocales, que fue nombrado mediante Orden de 5 de noviembre de 2025 (de la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, por la que se cesa y nombra a una vocal de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública, y se da publicidad a la composición de la misma), el 16 de diciembre de 2025 comunica su renuncia formal por incompatibilidad sobrevenida con efecto desde el 19 de diciembre de 2025, por lo que procede su cese como vocal de la Comisión.

Las personas interesadas, que deberán ser funcionarios de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que, preferiblemente, deberán pertenecer a uno de los cuerpos superiores de la Administración General del País Vasco, deberán dirigir sus solicitudes a la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno del Departamento de Gobernanza, Administración



eskabideak, eta Eusko Jaurlaritzako Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu, 5 egun balioduneko epean, iragarki hau iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Horrekin batera, gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen arloan duten prestakuntza eta esperientzia egiaztatzen duen curriculuma ere aurkeztu beharko dute.

Izendapena Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez egingo da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izendapenean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kide gisa aukeratutako pertsona zehaztuko da, bai eta ordezkari posibleen zerrenda bat ere, lehentasun-ordenaren arabera, deialdiaren gainerako eskatzaileen artean.

Agindu horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkezdakioke organo horri, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikokoaren egunean.

Digital y Autogobierno, y las presentarán en el Registro Electrónico General del Gobierno Vasco, en el plazo de 5 días hábiles a partir del siguiente a la publicación de este anuncio en el Tablón de anuncios, adjuntando curriculum que acredite su formación y experiencia en el ámbito de la transparencia y el derecho de acceso a la información pública.

El nombramiento se llevará a cabo mediante Orden de la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

En el nombramiento se especificará la persona elegida como vocal de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública, así como una lista, por orden de prelación, de posibles sustitutas y sustitutos entre las demás personas solicitantes de la convocatoria.

Contra dicha Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el mismo órgano en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV, o recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Erakunde Harremanetarako sailburuordea
El Viceconsejero de Relaciones Institucionales
XABIER IÑIGO OCHANDIANO MARTÍNEZ